



Zeberio Udalak, 2019ko zementiaren 28an egindako ohiko osoko bilkuran, adierazpen akordio hau onartu eban:

**“ZEBERIOKO UDALAREN ADIERAZPENA AUTOMOZIO SEKTOREAK ARRATIAN BIZI DUEN
EGOERAREN INGURUAN**

JUSTIFIKAZIOA:

Gaur egun ziurgabetasunez betetako egoera bizi dugu automozio sektorean, ibilgailuen produkzioak behera egin duelako. Beherakada horren ondorio gisa trokelgintza sektoreak ere beherakada nabarmena jasan du Euskadin eta nazioarte mailan. Horrek denak testuinguru okerra planteatzen du eta sektoreko enpresak ondorio kaltegarriak pairatzen ari dira.

Horregatik, oraingoa oso une latza izaten ari da bereziki Araluceko 141 langileentzat-une honetan likidazio prozesuan- eta Batz-eko 700 langileentzat.

Enpresa biak Arratia eskualdean daude kokatuta, automozio sektoreak gaur egun bizi duen krisiaren ondorioak pairatzen ari dira eta, aldi berean guztiz funtsezkoak dira bailara osoko industriari eta enpleguari dagokion aldetik.

Horregatik guztiagatik Zeberioko udalak proposatu nahi du ondorengo:

PROPOSAMENA:

1.- Zeberio Udalak bere elkartasuna eta babes adierazi nahi die gure eskualdean automozio sektorean lan egiten duten langile guztiei, sektorearen krisiaren ondorioak pairatzen ari direlako. Elkartasuna eta babes berezia adierazi nahi diegu Araluceko langileei eta beren familiei. Horrez gain, konpromisoa hartzen dugu gure esku dauden tresna gustiak erabiltzeko egoerari konponbide bat bilatzeko helburuarekin.

2.- Zeberio Udalak, Arratia Bailara osoarekin daukan konpromisoa adieraziz eta gure eskualdean industriari eta enpleguari eusteko helburuarekin, Araluceran jarduerari jarraipena ematen laguntzeko bideak lagundu eta babestuko ditu, baldin eta jasagarriak eta iraunkorrak badira eta enpleguaren kalitateari eutsiko zaiola bermatzen badute.

3.- Zeberio Udalak, Araluce eta Batz enpresek une honetan bizi duten egoeraren larritasunaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die, beren eskumenen barruan, jarduera bereziak abian jar ditzatela automozio sektoreak Arratia bailaran pairatzen duen egoera larriak ekarri dituen ondorioak arintzen laguntzeko, eta era berean, Arratiako Plan Industrial bat diseinatzeko eta berori aurrera eramateko bitartekoak jartzeko, azken urteotan eskualdea sufritzen ari den desindustrializazioa, eta enpresa zein lanpostuen galera gelditzeko.”